

INAZIO ZUBIZARRETA

JANTOKIKO ARAUTEGIA

JANTOKI ZERBITZUAREN HELBURUAK:

Jantoki zerbitzua eskolako beste jarduerak bezala, jarduera pedagogikoa da. Ikaslearentzat beste elementu hezitzaile bat da bere ikasketa prozesu osoan.

- A) Jantokian jatorduetako ohitura osasuntsuak bultzatu eta higiene ohiturak lantzen dira. Era guztietako zapore, elikagai, testurak jaten ikasiko du umeak, zein garrantzitsua den dieta osasuntsu eta orekatua egitea. Jakiak ondo mamurtzen, ondo eserita jaten, tresneria eta mahai zapia behar den bezala erabiltzen ... ikasiko du.
- B) Mahai-zapia etxetik ekartzearen autonomia ere barneratuko du.
- C) Etxeko ardurak hartzen ere lantzen dugu jantokian, mahaia prestatu eta batzearen ohitura.
- D) Eskola Agenda 21 proiektuan sartuta gaudenez oihalezko mahai-zapiak erabiliko ditugu paperaren kontsumoa murrizteko eta jantokian sortzen diren hondakinak gutxitzeko konposta egiten da eskolan, konpost hori gero gure ortuan erabiliko delarik.
- E) Jantoki zerbitzuak dirauen tartean elkarbizitza positiboa bultzatuko da eta harreman sozialak garatuko ditu umeak beste ikaskideekin baita begiraleekin ere.
- F) Aisi denborarako jolas ekintzak bultzatuko dira.

SUKALDARIEN BETEBEHARRAK:

Hezkuntza Sailaren menpeko langileak direnez, sinatutako hitzarmenean zehazten diren lanak burutuko dituzte. Sukaldeko langileen zereginak honakoak dira:

- A) Janaria prestatzea.
- B) Janaria behar bezala aurkeztea eta jantokira eramatea.
- C) Sukaldea eta bertako tresnak garbitzea.
- D) Jantokia garbitzea eta bertako instalazioak prest izatea.
- E) Jantokiko funtzionamenduari eragiten dioten gorabeheren berri ematea jantokiko arduradunari, besteak beste lehengaien erosketen eta tresnen mantentzeen gainean.
- F) Zerbitzuak behar bezala funtziona dezan, egoki ikusten den edozein funtzio, bai eta indarrean dagoen legediak agintzen dituen bestelako funtzioak ere

BEGIRALEEN BETEBEHARRAK

Begiraleen lanak GASCA enpresak eta eskolako zuzendaritzak adostutakoak izango dira. Besteak beste:

- A) Bere taldeko bazkaltiarren asistentzia kontrolatuko dute, gertakaririk egonez gero, arduradunari jakinaraziko diote.
- B) Jantokian ordena zaintzeaz arduratzea.
- C) Ikasleei eskolako arautegia betearaziko die.
- D) Ikasleen ardura eta zaintza, ikasleak jantokian daudenean, bai eta jantokian sartu aurreko eta bazkal osteko atsedendaldietan daudenean ere.
- E) Janaria zerbitzatzea.

JANTOKIKO ARDURADUNAREN BETEBEHARRAK

Jantokiko arduradunaren zereginak honakoak dira:

- A) Otordu zerbitzua antolatzea eta menuen jarraipena egitea. Familiei menuak helaraztea.
- B) Jangela zerbitzuko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko langileen buru izatea, bai eta kanpoko langileen buru funtzional ere, dagokionean, enpresa hornitzaileen eta beren langileen arteko lan-harremanak edonolako direla ere.
- C) Jangela erabiltzen dutenen kobrantzaren jarraipena egitea.
- D) Ikuskapen lanak egitea. Beste lan batzuen artean, ikuskapena honako hau dela ulertuko da: zerbitzua ematen den artean ikastetxean egotea, eta diziplinaren eta jangelako funtzionamendu egokiaren ardura hartzea.
- E) Tresneria erostea, konpontzen bidaltzea, sukalde eta jantokiko instalazioetako konponketa edo beharrak detektatzea eta egoera onean egon daitezen ahalegintzea.
- F) Kontratatuak enpresaren zerbitzuaren ezaugarriari eta kalitateari erreparatzea, behar denean intzidentziak jartzea, behar bada txostena aurkeztea OOG-ari, eta instalazioetako lanak eta hobekuntzak proposatzea.
- G) Elikagaien eta lokalen higiena kontrolatzea.
- H) Jangela zaintzea erabiltzen den bitartean.
- I) Zerbitzua emateko beharrezko den beste edozein funtzio, bai eta indarrean dagoen legediak agintzen dizkionak ere.

IKASLEEN BETEBEHARRAK

A) Jantokian sartu aurretik komunetik pasatu eta txiza egin eta eskuak garbitu behar dira. Behin jantokian sartuta komunera beharrezko kasuetan soilik joan ahal izango da.

B) Astelehenetan mahai zapia ekarri behar da zorro batean aste osorako, ostiralean etxera eramango da garbitzeko.

C) Jantokian denetik jan behar da. Plater bakoitzeko errazioaren kantitatearen erdia jan behar da gutxienez. Jantokitik kanpora ezin da jatekorik atera.

D) Bazkal orduak irauten duen bitartean begiraleen baimena behar da jantokitik ateratzeko. Patiora jaisteko ere begiraleen baimena behar da. Jantoki barruan ez dauden denboran patioan egongo dira begiraleen zaintzapean, ezin izango da pasabideetatik eta geletatik ibili. Eskola eremu barruan egon behar da.

E) JANTOKIKO ARAUTEGIA bete behar da. Dokumentu hau ikasleek sortutakoa da. Ildo nagusiak errespetua, garbitasuna, osasun ohiturak eta euskararen erabilera dira.

F) Zerbait gertatzen bada begiraleari emango diote abisua.

FAMILIAREN BETEBEHARRAK

A) Dagokion kuota ordainduko du finkatutako epeen barruan.

B) Kuotak hileko azken egunetan kobratuko dira banku-helbideratzearen bitartez.

Erabiltzaileek kopuru berdineko bederatzi kuota ordaindu beharko dituzte, lehenengoa irailean eta azkena maiatzean.

C) Ikasleren batek dieta berezirik beharko balu, edo jakiren bat jan ezin badu, dagokion osasun agiria (medikuaren ziurtagiria) aurkeztu behar dio jantokiko arduradunari informazio guztiarekin. Bestelako menu aldaketak egiteko ikasturte hasieran egin beharko da Eusko Jaurlaritzak zehaztutako epe barruan.

D) Kuoten ordainketan bankuko itzulpena egonez gero, eskolako zuzendaritza familiarekin harremanetan jarriko da jarraitu beharreko pausuez informatzeko. Ordainketak burutuko ez balira eta bankuko itzulketek jarraituko balute, bazkaltiarrek jangela zerbitzua gal lezakete OOG-ko batzorde ekonomikoak edo batzorde iraunkorrak erabakita.

E) Gaixotasun edo oporregatik jangela erabiltzen ez bada, dirua bueltatuko da beti ere **bost egun edo gehiago jarraian falta izan bada** . Kasu hauetan kitapena kuotaren % 50a izango da. Bekadunen kasuan, dirua Hezkuntza Sailak eskolara bideratzen du eta ez da itzulketarik burutuko.

F) Kurtsoan zehar norbaitek baja ematea erabakitzen badu, kuotaren kitapena egingo zaio.

G) Izena emana ez duen ikasleren batek noizbehinka jangela zerbitzua ezinbestean erabili behar izanez gero, gutxienez 24 ordu arinago jantokiko arduraduna abisatu beharko du eta lekua baldin badago eta dagokion menua zerbitzatzeko posible balitz ikaslea bazkaltzen geratuko da. "Alta de terceros" delako dokumentua behar bezala beteta izan behar da jantokia lehen aldiz erabiltzen denerako.

H) Egunen batean, bazkaltiar bat ez bada jangelan geldituko, ahalik eta arinen jakinarazi beharko zaio tutoreari edo jantokiko arduradunari.

I) Umeak ezin dira 13:00-14:50 tartean eskolatik eraman ez ekarri. Umea eskolatik atera behar bada 13:00tan egin beharko da eta 14:50tan bazkalduta bueltatu edo bestela bazkalduta irten daiteke 14:50ean. Umeren bat jangela ordutegian gaixotzen bada familiari

deituko zaio bila etor dadin. HH2 eta HH3koak 14:00tan bazkalostean irten ahal izango dira etxean siesta botatzeko hala eskatuz gero eta ohiko ordutegi moduan.

Salbuespena: Epe luze baterako mediku edo espezialista batekin astero hitzordua duten ikasleak **14:00**tan atera ahal izango dira beti ere aurretik zuzendaritzaren onarpena izanda.

Eguerdian jantokia erabiltzen ez duten ikasleak 14:50ean sartu ahal izango dira familien ardurapean, bestela bere eskola taldearekin elkartuko da eskolako araudia errespetatuz.

J) Irteera egunetarako pic-nic zerbitzua eskaintzen du jantokiak. Familiek eskatu beharko dute ikasturte hasieran banatzen diren oharren bitartez eta ikasleren batek nahi ez badu, familiari ez zaio dirurik itzuliko.

K) Familiak ez dira jantokian sartuko. Zerbait behar badute arduradunarekin egongo dira.

L) Umeek denetarik jaten duten ardura hartuko dute familiek. Irakasle eta begiraleekin elkarlanean eskola eta jantokiko funtzionamendu egokian lagunduko dute, etxetik gure seme-alabei pertsonenganako errespetua irakatsiko diegu, espazio eta jantokiko tresneria zaintzearen garrantzia, ohiturak, platerak eta mahaia batu eta txukun ixtea, zabor ontzien erabilera egokia, osasun eta elikadura , jarrera ona izatea bai jantokian bai eta jolas-orduan..

M) Familiek zalantzaren bat dutenean eskolara deituko dute jantokiko arduradunarekin berba egiteko eta jantoki zerbitzua hobetzeko proposamenak ere egingo dituzte.

N) Ramadán-a egiten duten familientzat:

Adin txikikoak ez daudenez Ramadán-a egitera behartuta, ikaslearengan eskolako erritmoa jarraitzeko duen eragina lehenetsiko da honela jokatzuz:

-Eskolako bazkaltiarra bada eta Ramadán-a egingo badu etxera joango da atsedena hartzera eta 15:00tako bueltatuko da.

-Arratsaldean Gorputz Hezkuntza duen egunetan jantokian bazkalduko du arratsaldeko saioa ondo jarraitu ahal izateko.

-Irteera egunetan ere normaltasunez jan eta edango du jarduerak ondo jarraitzeko.

EGUNEROKO FUNTZIONAMENDUA:

- Jantokiak hezkuntza-izaera duenez, ikasleen parte-hartzea ere sustatuko da: 3.zikloko ikasleek jartzen dute mahaia jolas-orduan sukaldarien laguntzarekin. Jantokian bazkaltzen duten ikasleek txandak egiten dituzte eta bazkaltzen geratzen ez diren bolondresak ere parte har dezakete mahaiak prestatzen. Ogi zati bat edo fruta ale bat ematen zaie lan horren truke.

- Jantoki zerbitzua 13:00tan hasten da baina HH2ko umeak arinago sartzen dira beste ikasle guztien irteerarekin ez koinziditzeko.

- LH1 eta LH2ko ikasleak 13:00tan barruko hallean geratzen dira begiraleen zaintzapean jantokian sartzeko. Beste ikasleak kanpoko sarreran dagokien begiraleekin elkartuko dira eta handik patio nagusira jaitsiko dira begiraleekin.

- Arratsaldeko sarreran ere, 14:55ean, patio nagusian begiraleekin elkartu eta sarrerarantz etortzen dira 15:00tako.

- Jantokian zerbitzatzaren diren hiru platerak jateko gehienezko denbora bat dago. Lehen txanda 13:45ean amaitzen da, amaitu ez dutenak bigarren txandakoekin geratuko dira amaitu arte. Bigarren txanda 13:50ean sartuko da eta gehienez 14:45ean aterako dira guztiak. Arautegian zehaztutako kantitatea jan ez duten umeak amaitu arte geratuko dira salbuespen moduan.

- Ikasturtean zehar jantokiko txostena helaraziko zaie familiei. Haur hezkuntzan bi ikasturtean zehar eta Lehen Hezkuntzan hiru aldiz. Beharrezko kasuetan familiei telefonoz deituko zaie.

E) Hiru hilero bazkaltiar bakoitzari menua banatuko zaio. Dieta bereziak, musulmanenak eta obolakteobegetarianoenak hilero banatuko dira.

JANTOKIKO ORDUTEGIA

Jardunaldi arrunta:

13:00-15:00 (Ondoren klaseak)

Jardunaldi jarraia:

13:30-15:00 (Ondoren etxera / Garraio zerbitzua)

JANTOKIKO ARAUTEGIA ETA NEURRI ZUZENTZAILEAK

| ARAUAK | NEURRI ZUZENTZAILEAK |
|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <p>-Elkarrenganako errespetua izan, kide guztiak ondo tratatu.</p> <p>-Zaintzaileen esana bete.</p> | <p>-Maitasungrama bat bidali</p> <p>-Adostokian arazoa konpondu.</p> <p>-Patio zaintzak egitea zaintzaileekin</p> <p>-Epe batez jolas-ordu gabe geratzea.</p> |
| <p>-Jantokian modu egokian bazkaldu: ONDO ESERITA, JANARIAREKIN JOLASTU BARIK, SUABE HITZ EGIN ...</p> <p>-Jantokiko garbitasuna eta materiala zaindu.</p> <p>-DENETARIK JAN (Errazioaren kantitate erdia gutxienez.)</p> <p>-Euskaraz hitz egin.</p> | <p>-Txikiekin bazkaltzea.</p> <p>-Txikiei janaria ematen laguntzea.</p> <p>-Jantokia garbitzen gelditzea.</p> <p>-Epe batez jantokia prestatu behar izatea sari gabe.</p> <p>-Amaitu arte jantokian geratzea.</p> <p>-Arazoa larria denean tutorea eta familiak jakitun ipini eta "Elkarbizitza batzorde"ra bideratu. (AJA)</p> |

Jantokira etortzea ez da beharrezko jarduera, beraz, zerbitzu hau erabiltzen duenak arautegia bete behar du. Arauak errespetatzen ez badira AJA aplikatuko da.